

KIRIKIÑO ETA PATINETE MAGIKOA



KIRIKIÑO ETA PATINETE MAGIKOA



**BAZEN BEHIN,
BASOAREN ERTZEAN
BIZI ZEN TRIKU TXIKI BAT.
BERE IZENA
KIRIKIÑO ZEN.**



**KIRIKIÑORI ASKO GUSTATZEN ZITZAION
ISTORIOAK ASMATZEA.
ZUHAITZ BATEN AZPIAN ESERI,
KOADERNOA ZABALDU
ETA HITZAK DANTZAN JARTZEN ZITUEN.**



**EGUN BATEAN, BASOTIK JAITSI
ETA BILBORA IRITSI ZEN.**



**SANTUTXUKO KALEETAN BARRENA IBILI ZEN.
UMEAK JOLASEAN IKUSI ZITUEN.
-ZEIN ONDO PASATZEN ARI DIREN! -ESAN ZUEN**



**BAINA ADI-ADI ENTZUN ETA
KEZKATU EGIN ZEN.**

**— AI ENE, EZ DUT EUSKARARIK
ENTZUTEN...**



BANKU BATEAN ESERI ZEN.

**HAN, KONTXA BERE LAGUNAREKIN
TOPATU ZEN.**

**— KEZKATUTA NAGO — ESAN ZUEN
KIRIKIÑOK.**

— NI ERE BAI — ERANTZUN ZION ANDRAK.



- ETA ZERBAIT EGINGO BAGENU?
- ETA UMEAK EUSKARAZ BIZITZEKO LEKU BAT SORTUKO BAGENU?



EZ ZEN ERRAZA.
EUSKARA DEBEKATUTA ZEGOEN.

BAINA BELDURRA BAINO
HANDIAGOA ZEN AMETSA.



ISILEAN ELKARTU ZIREN
EGOIALDE IZENeko BASERRIAN
PIXKANAKA, JENDE GEHIAGO HURBILDU ZEN



ETA HORRELA SORTU ZEN
KIRIKIÑO IKASTOLA
UMEAK, HITZAK ETA IRRIBARREAK
BATERA HAZI ZIREN.



URTEAK PASA ZIREN...
1988AN IBILALDIA BILBORA ETORRI ZEN,
TXURDINAGAKO KALEAK EUSKARAZ BETETZERA



EUSKARA KALEETAN IZAN ZEN.

**GERO ETA UME GEHIAGO ZEUDEN IKASTOLAN,
HORREGATIK, SANTUTXUTIK TXURDINAGARA JOAN GINEN,
IKASTOLA HANDIAGO BATERA.**

... ORAINDIK EZ DA NAHIKOA.

... BILBO HANDIA DA.



Santutxu

Txurdinaga

2026AN, BERRIRO DATOR IBILALDIA.

ETA ORAINGOAN... KIRIKIÑO PATINETE MAGIKOAN DATOR.

ARIN-ARIN, BILBOKO TXOKO GUZTITARA.



**- PREST ZAUDETE?
- BAI!!!**

ETA GUZTIEK BATERA ESATEN DUTE:

**KIRIKINO
IKASTOLA**

EUSKARAZ

HIRI KIRIBILI BIL!

EUSKARA GEHIAGO, GEHIAGOREKIN ETA GEHIAGOTAN ❤️

**KIRIKIÑO UME GUZTIEN LAGUNTZAZ
MUNDUA EUSKALDUNTZERA JOAN ZEN.**



**HALA BAZAN ALA EZ BAZAN, SAR DADILA,
KALABAZAN ETA IRTEN DADILA KIRIKIÑO IKASTOLAN**

